

Nik, Josetxo Ibazetak, gaur arte Donostiako Udaleko Alkatetzako idazkari izan naizenak, gaur bertan nire dimisioa aurkeztu diot ofizialki Donostiako alkate, Juan Karlos Izagirreri.

Gaur ezagutzera eman den albistearen harira, gertakizun horiek zuzenak ez direla jakitun naiz. Aipa gertakizunak testuinguru zehatz batean eman ziren, enfrentamendu testuinguru batean. Horiek, hala ere, ez dira aitzakia, gertakizunak ez baitira zuzenak.

Gertakizun hauen ondorio zuzena, Bildu koalizioaren aurka ekiteko bide irekitzen duela ulertzen dut, eta biziki sentitzen dudala eman nahi dut aditzera. Biziki sentitzen dut Donostiako alkate Juan Karlos Izagirrek niregan jarritako konfidantza gertaera honengatik kale egin izana; biziki sentitzen dudana bezala Bilduk eta, oro har, Bildurengan konfidantza jarri zuten herritarrei kalte egin izana. Biziki sentitzen dut.

Onartzen dut horrelako jarrerak desagokiak eta ez zuzenak direla, eta horregatik aurkeztu dut nire berehalako dimisioa.

2012ko uztailaren 11ean,

Josetxo Ibazeta